

HAURREKIN

OSPATZEN DIREN MEZETARAKO

III. ESKER ONEZKO OTOITZA

Jauna zuekin. *ᚱ*. Eta zure izpirituarekin.

Gora bihotzak. *ᚱ*. Jaunari dauzkagu.

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari. *ᚱ*. Egoki da eta zuzen.

Urtean gaindi

Eskerrak zuri, Jainko Jauna.
 Alabainan, zuk egin gaituzu,
 haurride bezala elgar maitatuz
 zuretzat bizi gaitezen.
 Zuk emaiten daukuzun dohaina da
 batek besteari ongi eginez elgarrekin bizitzea,
 eta gure bozkario ta nahigabeetan
 elgarren lagun izaitea. ▶ *Horrengatik ...568*

Abendualdian

Eskerrak Zuri, Jainko Jauna.
 Zuk egin gaituzu,
 zu ezagutu eta maita zaitzagun
 eta beti zurekin bizi gaitezen.
 Askotan erran daukuzu,
 zuk gure adiskide izan nahi duzula ;
 profeten bidez,
 zure agintzetan fidatzen erakatsi daukuzu.
 Eta zure herriak
 hainbeste igurikatu zuen ordua bete zenean,
 zure Seme bakarra igorri zaigun,
 gure familiako anaia zaharrena bezala,
 guziak zure lagun izanez bizi gaitezen.
 Munduaren azkenean berriz etorriko da
 eta biziaren besta handira eramanez gaitu,
 zure etxeko zorion betera. ▶ *Horrengatik ...568*

Eguberrialdian

Eskerrak zuri, Jainko Jauna.
 Zuk maitasunez egin zinuen mundua
 eta, maite gaituzulako,
 gizakiak bekatuan erori zirenean
 zure eskutik ez zinituen utzi,
 bainan beren bidera atera zinen.
 Orain Jesus igorri daukuzu, zure Seme maitea,
 ilunbetan argi egiten duen argia.
 Bera aberatsa izanik, pobre egin zen gugatik,
 bere maitasunaz gu aberasteko. ▶ *Horrengatik ...568*

Garizuman

Eskerrak zuri, Jainko Jauna.
 Gauza harrigarriak egiten dituzu,
 on-ona zarela guri erakusteko.
 Guzleri, oneri gaiztoeri bezala,
 lore, fruitu eta beste gauza on asko emaiten dizkiguzu,
 guretzat gozabide izan daitezen
 eta guk elgarrekin erabil ditzagun.
 Aita ona zira eta badakizu
 bekatuan erortzen direnekin pazientzia izaiten,
 bihotz-berritu eta hobeak izan ditezen. ▶ *Horrengatik ...568*

Bazkoaldian

Eskerrak zuri, Jainko Jauna.
 Alabainan, zuk, Jauna, bizia maite duzu,
 bizitzerat dei egiten daukuzu,
 eta gure betiko zoriona nahi duzu.
 Horrengatik Jesus, gure arteko lehena,
 hilen artetik piztu zinuen,
 eta bizi berria eman zinion.
 Bizi hori bera eman daukuzu bataioaz,
 eta hitzeman daukuzu gu ere piztuko girela Kristo bezala :
 orduan ez da gehiago izanen
 ez heriotzerik, ez oinazerik, ez nigarrik.

▶ *Horrengatik ...568*

- Horrengatik, Jainko gure Aita,
 pozik eskerrak emaiten dauzkizugu,
 zutan sinesten duten guziekin batean ;
 eta sailduekin eta aingeruekin
 goresten zaitugu aho batez kantari :

Denek

Saindu, Saindu, Saindua, diren guzien Jainko Jauna.
 Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak.
 Hozana zeru gorenetan.
 Benedikatua Jaunaren izenean datorrena.
 Hozana zeru gorenetan.



Bai, saindua zira, Jauna, eta guretzat ona,
 eta gizon-emazte guzientzat urrikaltsua.
 Eskerrak emaiten dauzkizugu,
 bereziki Jesu Kristo zure Semearengatik.
 Mundu huntarat etorri zen,
 gizon-emazteak zukan urrun dabilzalakotz,
 eta elgarren artean bizitzen ez dakitelakotz.
 Izpiritu Sainduaren bitartez,
 gure begi-beharriak ideki zituen,
 ikus dezagun elgarren anai-arreba girela,
 eta zu zaitugula guzien Aita.

Bazko gau beilatik bazkoko bigarren igandea arte

Berak ekarri zaigun berri ona :
 zeru ederrean betierekotz zurekin bizitzeko eginak girela.
 Eta bizi hortarako bidea erakutsi zaigun :
 maitasun bidea, berak gure aitzinetik hartu zuena.

Eta orain Jesu Kristok mahain huntan biltzen gaitu,
 guk hemen egin dezagun, berak lehenik egin zuena.

Eskuak bildurik eta oparigaien gainerat zabaldurik

Aita guziz ona, saindu egizkitzu ogi eta arno hauek :
 eta Jesus zure Semearen
 Gorputz ✠ eta Odol eginen dira guretzat.
 Guregatik hiltzeko bezperan,
 bere dizipuluekin azken afaria egiten ari zelarik,
 ogia hartu zuen
 eta, zuri eskerrak emanez, zatitu zuen,
 eta heieri eman zien, erranez :

«HAR ZAZUE TA JAN GUZIEK HUNTARIK :
 HAU NERE GORPUTZA BAITA,
 ZUENTZAT EMANEN DENA.»

Berdin kaliza arnoz betea hartu zuen
 eta, zuri eskerrak emanez,
 bere dizipuluari eskaini zien erranez :

«HAR ZAZUE TA EDAN GUZIEK HUNTARIK,
HAU NERE ODOLAREN KALIZA BAITA,
BATASUN BERRI TA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO IXURIKO DENA.»

Eta gero erran zien :

«EGIZUE HAU NERE OROIGARRI. »

Hau da sinestearen misterioa.

Batek Kristo guregatik hil da ;

Denek Kristo hilen artetik piztu da.

Zure zain gaude, Jesus Jauna!



Horrenгатik, Aita guziz sailndua,
zure aitzinean gaude pozez beterik,
gogoan baitugu gu salbatzeko Jesusek egin zuena.
Haren heriotzea eta piztea ospatzen ditugu,
berak Elizari eman zion sakrifizio sailndu huntan.

Aita guziz sailndua, zeruetan zirena,
onar gaitzazu zure Seme maitearekin batean.
Jesusek guregatik hil nahi izan zuen,
bainan zuk piztu zinuen,
eta horrenгатik diogu :

Denek Gora zu, Jainko guziz ona !

Eskerrak zuri ! Eskerrak, Jauna !

Go - ra Zu Jain - ko gu - ziz o - na _____

Es - ke - rrak Zu - ri, es - ke - rrak, Jau - na!

Jesus orain zure ondoan bizi da,
bainan hemen dago ere gurekin.

Denek Gora zu, Jainko guziz ona !
Eskerrak zuri ! Eskerrak, Jauna !

Azken egunean aintzaz etorriko da :
eta haren erreinuan ez du nehork izanen
ez nekerik, ez penarik, ez nigarririk ;
bekatua eta heriotzea ez dira gehiago garaile izanen.

Denek Gora zu, Jainko guziz ona !
Eskerrak zuri ! Eskerrak, Jauna !

Aita guziz saildua,
mahain huntarat deitzen gaituzu,
Izpiritu Sainduaren pozez beterik
Kristoren gorputza hartzeko.
Janari hunek eman diezagula indar
zuretzat gero ta atsegingarriago izaiteko.

Gogoan izan, Jauna, **I.** gure Aita saildua
I. gure Artzaina, eta beste artzain guziak.

Urtean gaindi :

Emaiezu zure laguntza
Kristoren dizipulu diren guzieren,
bakegileak eta zorion-emaileak izan daitezen.

Abendualdian

Emaiezu zure seme-alaberi,
gauza guziak, berdin eguneroko gauza ttikienak ere,
ongi egiteko grazia,
hola, datorren Jesusi ongi etorria egin diezaigun.

Eguberrialdian

Egizu zure seme-alabek aintza eman diezazutela zeruan
eta ahaleginak egin ditzatela
lurrean bakea finka dezagun,
zuk maite dituzun gizon-emazteen artean.

Garizuman

Emaguzu zure seme-alaberi,
egunero, zure gogoko diren gauzak egiteko grazia ;
hola, munduaren argi izan gaitezen
eta bihotz onekoak gauza guzietan,
gure haurrideen artean.

Bazkoaldian

Ixur ezazu fededunen bihotzetan
Bazkoaren bozkario betea,
nahigabetan dabiltzan guzieri
bozkario hori eman diezaien.

Gogoan izan, Jauna, hil diren gure haurrideak ere ;
har itzazu zure aurpegiaren argitan.

Emaguzu guri ere egun batez zure ondoan bizitzea,
Jesusen Ama Maria beti Birjinarekin,
huneren senar Josep sailduarekin,
(I. sailduarekin) eta zeruko sailduekin bat eginik,
Kristoren baitan.

Huneren bitartez, hunekin eta hunetan,
zuri, Jainko Aita guziahaldunari,
Izpiritu Sailduarekin batean,
ospe eta aintza guzia
gizaldi eta gizaldi guzietan. **℟̄. AMEN**

➤ *Segida : GURE AITA 436 or.*